



ASTE HONETAN UITZIKO MENDATEAN BARRENA

Leitza, Larraun eta Araitz inguruak ezagutuko ditugu seigarren bizikleta ibilbide honetan; txangoak 65 kilometro ditu » 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2010-07-17


VIII. URTEA 2.054. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

'Remi, herriaren taupada' liburua kaleratu du Villabonako herriak

OMENALDIA Remi Gogoan ekimenak senide, lagun eta herriko eragile desberdinen testigantzak bildu ditu

IRUDIAK Liburuarekin batera Remi hil ondoren ateratako argazkiekin osatutako DVD-a ere kaleratu dute »



Herritar ugari gerturatu zen Remi Ayestaran ibilbidean bere omenez idatzitako liburuaren aurkezpen ekitaldira. A. IMAZ

Haurreskolako sabaia erori izana salatu dute

ASTEASU Guraso zein hezitzaileek pasa den martxoaren 26an istripua zergatik gertatu zen aztertzea eskatzen diote Udalari »

Jaietan ikurrinak ateratzeko deia egin dute

IBARRA Lizarran izango den Euskal Herria egunera joateko gonbita egin dute herritarrek »

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidalai izen-emata orria:
Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31860 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

EXHIBITZARIA ZARA? ERAKLS EZAZU
TOLOSALDEAN NEGOZIO IDEIA BERRIAK SORTZEN LAGUNTZEKO SUSTAPEN KANPAINA

AURKEZPEN EPEA:
-Ekimaren 1etik Irailaren 30era edota aurrekontua agortu arte
-Enpresa martxan jartzeko epea 2010eko Abenduaren 31an amaitzen da

100€ NEGOZIO IDEIAREN BIDERAGARRITASUNA DEFENDITZEAGATIK

500€ TOLOSALDEAN ENPRESA EKIMENA MARTXAN JARTZEKO

INFO: 943 654 501
www.tolosaldeagaratzen.net
San Esteban 20
20400 TOLOSA

Aberriaren 1. eta 15.1999. Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestekoak, betetarik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSALA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, erregistratu dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezabatatzeko eta kontratu egiteko eskubideak erabiltzea. Hala ere, nahiz izanez gero, idatzi behar duzue zure datu pertsonalak TOLOSALA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa, edo harpidetza ghitza@hitza.info



Sukaldearen eta mitologiaren inguruan gozatzuz

LEITZA • Euskara zerbitzuak eta Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateak, elkarlanean, Haur txokoa eta Udako tailerrak antolatatu dituzte. Aste honetan txikienek mitologiarekin egin dute jolas. Tartaloren maskarak egin oste-

an, besteak beste, akelarrea zuten helburu. Helduagoak berriz sukaldean ibili dira. Iaz bezala, aurten ere beste hainbat gauzen artean erroskilak egitea tokatu zaie haurrei. Hurrengo astean papera izango da tailerren oinarria. Hala nola, bir-

ziklatzen, eskulanak egiten, kolorez tindatzen eta abar ikasiko dute. Uztailaren 19tik 23ra azkenik, barnean daramaten artista hori kanporatuko dute. Haur txokoko eta tailerrek sormena, kultura eta natura dituzte ardatz. A. IMAZ



Auzolanaren bigarren txanda

TOLOSA • Auzolandegietako bigarren txandako gazteak atzo iritsi ziren Tolosara. Alkatearen harrera jaso ondoren, ondorengo egunetan, San Inazio erietxean eta Uzturreko dorrean ariko dira lanean, lehen txandako gazteen moduan. A. IMAZ

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Eskualdean baseri edo borda bat hartuko ge-

nuker a lokairuan. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Udalbiltza auzia salatu dute

Tolosa • Gaur Bilbon 17:30ean hasiko den manifestaziora joateko deialdia egin zuten herenegun.

ERREDAKZIOA

Zazpi urteren ondoren, Udalbiltzaren aurkako epaiketa herenegun hasi zen Espainiako Auzitegi Nazionallean, Madrilen. Bertara 22 euskal herritar deitu dituzte. Fiskalak eta akusazio partikularak, ETArekin lotura dutelakoan, hamarna urtetik gorako espetxe zigorra eskatzen ditu, eta defentsak absoluzioa; ETArekin zerikusirik ez dutelako.



Tolosan Udalbiltzaren aurkako epaiketa salatu zuten herenegun. A. IMAZ

Gaur Bilbon manifestazioa

Eskualdeko ordezkari bat herenegun Madrilan izan zen, auzipetuei babesazalduz. Tolosan be-

rriz, epaiketa bera salatu zuten 80 lagunek. Gaur Bilbon, 17:30ean, egingo den manifestaziora joateko deia ere luzatu zuten.

Txindokiko marka berriaren bila

ERREDAKZIOA

Abaltzisketan bizi den Patxi Caminosek Txindokiko marka hautsi nahi du. Horretarako, bigarren saiakera egingo du gaur bertan.

17:00etan irtengo da Larraitzetik eta 24 ordutan 12 aldiz igo eta jais-tea da bere helburua. Iker Karrera amezketarrak 11 itzulirekin jarri zuten marka 2004ean. Patxi Cami-

nosek iaz egin zuen lehen ahalegi-na, baina ez zuen marka ontzerik lortu. Esan bezala, gaur 17:00etatik aurrera, bigarren aukera izango du.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

«Gaur egun gutxi ikusi eta ukitzen den gizatasuna zenuen»

Villabona » 'Remi, herriaren taupada' liburua kaleratu dute. Senide, lagun eta herriko eragileen testigantzak jaso dituzte.

ERREDAKZIOA

Uztailaren 31n beteko da urtebete Remi Ayestaran, Villabonako alkateordea, bere herriaren aldeko lanean ari zela hil zenetik. Bera maite izan duten hainbat herritar eta lagun lanean aritu dira; «Remi, Villabonaren eta Euskal Herriaren alde egin zuen guztia ahaztu ez dadin, eta ezagutu ez zuten horiek nor izan zen jakin dezaten».

Remi Gogoan ekimenak, *Remi, herriaren taupada* liburua kaleratu du. Bere ibilbide guztia eta gehiago jasotzen du. Bertan bere senideen, Estixu neskalagunaren, koadrilakoen, Burgoseko lagunaren, berak parte hartutako elkarte ezberdinen, tabernarien... testigantzak bildu zituzte. Mundu osoatik jasotako atxikimenduek ere badute beren lekua.

Atzo aurkeztu zuten jendaurrean argia ikusi berri duen liburua, bere izena daraman ibilbidean. Remi Gogoan ekimeneko kideak, neskalaguna, familiakoak, udal ordezkariak, lagunak, herritarrak... elkartu ziren ekitaldi hunkigarrian.

Iyuya Urrutia eta Unai Urreaga



Remi Ayestaran ibilbidean aurkeztu zuten 'Remi, herriaren taupada' liburua. A. IMAZ

izan ziren aurkezpena egin zutenak eta horretarako liburuaren hitzaurreaz baliatu ziren. Ahaztezi-na, konpromisoa, gizatasuna eta leiala bezalako hitzak erabili zituzten, Remi gogoratzerakoan.

«Ahaztezina zara Remi. 27 urte besterik ez eta hain handia da zuk utzi diguzuna. Hain gazte, eta irudi karismatiko bat Villabonan. Herriari zure parte-hartzea agerikoa da liburu osoan zehar, taupadak bailiran. Ikusi besterik ez dago nola betetzen diren orrialdeak, ezker abertzaleko zure kideetatik hasi, herriko elkarte eta eragileekin jarraitu, sukaldeko kontuekin segida eman eta Santiotako dandor hotsetaraino. Zure faltaren iluntasuna liburuaren orrialde barikotzean argitzen da», argitu zuten

aurkezleek. Liburuan zehar Remi Ayestaranek herriaren egin dako lana ere bildu dute, 2007ko maiatzaren 27an herriko zinegotzi izendatu zutela gogoratuz: «Zuk, zure indarrak eta ilusioak batu zenuen proiektu batean sinetsiz. Honekin batera zure ideiak, ametsak, nahiz borrokak zenituen bai Euskal Herriak independentzia lortzeko bidean baita Villabonaren aldeko lan konprometituan ere».

Remi Ayestaran oso ezaguna zen eskualde osoan eta hori ere islatzen da liburuan. «Gaur egunean gutxi ikusi eta ukitzen den gizatasuna zenuen. Norkez du edukitratu-rik zurekin? Nori ez diozu egin irribarre? Eskua eman? Zaila zen zu eta maitatzea. Leiala zinen oso. Hori guztia dela eta zure bizitza

puskak bildu ditugu liburuan. Kontakizun, gertaera, pasadizo, istorio nahiz bitxikeria ugariarekin osatu dugu zure irudia. Lan hau osatzeko, hainbat pertsonak bere denbora inbertitu dute. Parte hartu duten guztiek mundu justuago baten alde jokatu dute, mediatikoki kontatu izan zenaren eta bizi izan genuenaren artean distantzia bat dagoela azaleratu nahi izan dutelako. Argi gera dadin egun hartan, uztailaren 31n, debeku eta errepresioaren aurrean herri honen alde giza harresia egiteagatik, zure bizia eman zenuela. Azken taupadak», azaldu zuten. «Euskal Herriari bizi dugun salbuespen egoera dela eta testigu zuzenak diren Ayesta (Remiren anaia) eta Mantalax-ek kartzelatik egin be-

» 'REMI, HERRIAREN TAUPADA' LIBURUA

- **Salgai.** Momentuz, Villabonako okindegiaren eta Basajaunen eta Periodistan. Amasan, Iturrigoxo tabernan.
- **Prezioa.** 12 euro.
- **Liburu+DVD.** Liburuaz gain, DVD-a du barnean. Bera hil ondorengo egunetan ateratako argazkiekin eta urrian egin zitzaion omenaldiko bideoarekin osatua.
- **Euskaraz.** Liburuak euskaraz idatzia badago ere, bukaeran, testu nagusienak gazteleraz daude.

har izan dituzte beraien kontaktuznak. Aupa zuek!», gaineratu zuten gero.

Liburua, ere berean, etorkizuneari ere gaztea nor zen jakiteko baliagarria izango dela uste dute Remi Gogoan ekimeneko kideek. «Pentsatzen dugu Euskal Herriko historia ezagutuko duten gazte belaunaldi horiei zure liburua idatzita aurkitzeko mereziko diela gure herriaren benetako iraganera gerturatzeko. Horregatik egin duguliburu hau, Villabonako eta Euskal Herriko historian idatzita gera dadin nor izan zinen. Ez dugu iragana galtzen utziko! Hemen duzu, Remi, zure liburua, herri liburua; lehen ez bezala, zure betiko laguntza eta prestutasunik gabe egina. Kostata baina, herriarekin egin eta gainera herriarentzat, zure gustura! Zuk emandako taupadak, zure lan tresnez idatzia; eskuan boligrafoa eta ahoan hitza. Herriaren taupadak».

Txalo zaparradarekin amaitu zen liburu berezi honen aurkezpen ekitaldia.

Haurreskolako hezitzaile eta guraso batzuk euren desadostasuna azaldu dute

Asteasu » Martxoaren 26an Haurreskolako sabaia erori zen. Hezitzaileak eta gurasoak haserre daude.

ERREDAKZIOA

Asteasuko Haurreskola Elizmendi auzoko Santa Krutz ermitan aurkitzen da. 2004. urtean ireki zuten atek eta joan zen martxoaren 26an, 10:30ak aldera, leiho bat ireki ostean, sabaia goitik behera erori zen. Istripua 1-2 urteko haurren gelan izan zen eta une horretan, hezitzaileekin batera ariketak egiten ari ziren.

Gelan, 13 ume eta 2 hezitzaile zeuden. Sabaia erortzeraz zihoala ikustean haur guztiak ateratzen hasi ziren. Zorionez, guztiak onik atera ziren eta ez zen ezer gertatu.

Gertaera eta gero, alkatearen aldetik erantzun egokirik jaso ez dutela salatu nahi dute komunikabi-



Haurrak bertan zeudela sabaia goiti behera erori zen. HITZA

deetan. «Alkateak, bere erantzukizuna haurreskolako konpontzea zela adierazi zuen. Segituan egin zituz-

ten konponketa lanak eta hori oso ondo iruditzen zaigu. Baina bost urte baino ez dituen eraikinaren



Erniobeia 3
Billabona
Tel.: 943 69 33 75

sabaia zergatik erori zen jakiteko asmorik ez zuten erakutsi eta ez dute zergatiak aztertze inolako asmorik», gaineratu dute.

Haurreskolako guraso batzuei berriz, arrazoia jakitea ezinbestekoa iruditzen zaie eta beraiek deituta egin dituzte Udalarekin bilera. «Gaia serioa da. Ezer gertatu ezenez, bere horretan utzi dute

gaia. Baina erantzukizunak bete behar dituzte. Etagsa, elektrizitatea... nola daude?» galdetzen dute. «Konpontzea oso ongi dago, baina orain ere eskola berria eta igerilekuak egiten ari dira, ea nola egiten dituzten?» azpimarratzen dute.

Sabaia, egurrezko egiturari lotuta egon beharrean, eskaiolan zegoen itsatsia.

«Langileek, onartu zuten gaizki jarri zutela eta barkamena eskatu ziguten» diote. Baina orain, nor ordaindu behar dugu obrak? berriz herriarrok? euren haserre kale-ratu nahi izan dute.

400 AUKERA HANDIA ETA GUZTIA
Kalitatezkoa

EDARIAK, ELIKAGAIAK, JANTZIAK, ESKULANTZITA,
DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...

SARTU ETA EROSI GUREAN www.euskalherrikoPlaza.com

«Ibartar guztiak gonbidatuta daude» Lizarrako Euskal Herria egunera

Ibarra » laz anaitu ziren Nafarroako herriarekin; aurten bigarren aldiz irailaren 18an ospatuko dute ekimena.

ERREDAKZIOA

Hainbat ibartarrek agerraldia egin dute herritarrei bi dei zabaltzeko asmoz. Alde batetik, proposatzen dute, herriko jaietan, hau da, abuztuaren 20tik 25era bitartean, bakoitzak bere etxeko balkoia, ikurrinarekin apaintzeko. Bestetik, Lizarran, irailaren 18an ospatuko den Euskal Herria egunera joateko gonbita egiten diete ibartarrei.

Duela urte bat inguru, Lizarra eta Ibarrek senidetzea erabaki zuten. Harremanari hasiera 2009ko urriaren 10ean eman zioten Ibarren. Hartu-eman hau bi herrietako talde ezberdinek eraman dute aurrera, halanola, Alurr dantzataldeak, Ibarako gazte asanbladak, Sendi Ekintza elkarteak, Eneko Aritzaren lagunak; Denak areto futbol taldeak, Bartolak, herriko musika taldeek, dultzaineroek... Bultzatzaileen esanetan, «talde hauek dirabihotza, baina Ibarroko herritar guztiak dira gorputza,



Belabieta kiroldegian agerraldia egin zuten anaitzearen bultzatzaile diren taldeetako kideek. ASIER IMAZ

haurrak, gazteak, ez hain gazteak, helduak eta helduagoak».

Aurten ibartarrei dagokie Lizarrara joatea, Euskal Herria egunera. Aipatu bezala, hau irailaren 18an ospatuko dute. Horretarako, 09:00etan irtengo dira autobusak eskualdetik. Bestalde, han egingo den bazkarirako txartelak ere aldeaz aurretik eskuratu ahal izango

dituzte interesatuek. Helduek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta haurrek, sei.

Hainbat hausnarketa plazaratzuz

Belabieta kiroldegian egindako agerraldian, aipatutako bi deiak lutzatzeaz gain, hausnarketa bat ere plazaratu nahi izan zuten. Bertan

azaldutakoaren arabera, «Euskal Herria, euskararen herria, gehienetan, mapetan agertzen ez bada ere, ukazina da, hemen gaude eta bagara». Horren aurrean, «nortasun eta izate hori desitxuratsen saiatu direnei» aurre eginaz, argi utzi nahi diete, «garai berriak datozela gurera, eta esperantza eta ilusioa zabaltzen ari direla». Baina

» EUSKAL HERRIA EGUNA

Irailak 18, larunbata

- **09:00.** Autbusak Ibarroko plaza-terratik aterako dira Lizarrara.
- **10:30.** Ongi-etorria ibartarrei, eta kaldikoa Gaztetxean. Bertan zantzar ikastarotxo eta herria ezagutzera zantzarren laguntzaz.
- **11:30.** Dantzarien harrera (nafar eta gipuzkoar dantzak) eta dantza kolektiboa.
- **12:30.** Senidetze ekitaldia.
- **14:00.** Lizarra eta Ibarra herrien bazkaria.
- **Bazkalostean.** Trikitilariak, kantariak, bertsolariak...
- **18:30.** Poteoa elektro txaranga-ekin.
- **20:30.** Afari merienda La Bota elkartearen.
- **22:00.** Nahi duenarentzat itzulerako autobusa edo dantzaldia La Bota elkartearen eta parranda.
- **Egun guztian zehar.** Jokoak, antzerkia, gaztelu puzgarriak...

hau dena bideratzeko, konpromisoa eta elkarlana ezinbestekotzat jotzen dituzte. Horregatik, honela dei egiten diete herrikideei: «Euskal Herria maite dugun ibartarrok ere, esfortzu bat egin beharra daukagu, elkartu, eta hainbatetan burutu dugun auzolana landu». Ideia hori oinarritzat hartu dute Lizarrara joateko deia egiteko garaian. Baita, jaietan, ikurrinak balkoitik zintzilikatze proposatzerakoan ere.

Euskadiko txapelketa jokoan

Sega » Bihar Oartzunen jokatu da finala eta bertan ariko dira lehian Urki, Kanflanka eta Etxeberria segalariak.

ERREDAKZIOA

Bihar jokatu da aurtengo Euskadiko Segatxapelketako finala. Hau Oartzungo Pikoketako belardi edo sorotan izango da. Iaz ez zen Euskadiko Txapelketa han jokatu, baina bai Gipuzkoako finala, ekainaren 28an hain zuzen ere, eta Juanjoxe Lizasok irabazi zuen. Orduan aritu ziren lau segalarietatik bakar bat ere ez da ariko biharra.

Euskadiko finalean lau segalari lehiatuko dira: bi nafar eta bigipuzkoar, tartean, eskualdeetako hiru. Honenbestez, hauek dira finalistak: Jexumari Ormaetxea Urki (Orendain), Jon Kanflanka (Leitza), David Mariñelarena (Lantz) eta Jokin Etxeberria (Amasa). Irabazten duenak jantziko du iaz Juanjoxe Lizasok buru gainean jarritako txapela.

Segalariak ahalik eta kilo gehien eta txukunen ebaki beharko dute ordubeteko saioan belardia.



Jon Kanflanka leitza era finalean lehiatuko da bihar. HITZA

Asteartean prestatu zuten belardia finalerako. Segalari bakoitzaren laguntzaileak, belardiaren jabea eta federazioko ordezkariak aritu ziren sailak prestatzen. Guztira seina sail prestatu zituzten segalari bakoitzarentzat, eta orotara, 1.314 metro karratu.

Osoleku egokia da saioa bertatik bertara jarraitzeko, eta gune bereziak prestatu zituzten ikusleak erdialdean ere kokatu daitezten. Jon Kanflanka segalaria ere tartean aritu zen prestaketa lanetan. Urki ere Pikoketan izan zen belardia ikuskatzen, Isidro Tapia lagun zuela. Kanfalnakk saiotxo bat ere

egin zuen belarra eta segak probatzen. Belarra, berdea da, azpialdetik ugaria, eta, beraz, azpialdetik ebakitzeko aproposo kiloak batzeko. Ardiak ibili ohi dira, eta horregatik, zola egokia du. Edonola ere, lehenbailehen ebaki beharreko belarra da.

Lehian ariko diren lau segalarietatik batentzat izango da lehen finala: Jokin Etxeberria gipuzkoarrentzat. Eskarmenturik handiena duena, bestalde, Mariñelarena izango da, 1998an jokatu baitzuen lehen txapelketa. Iaz bost segalari aritu ziren saio bakarreko txapelketan.

Laburrak

Markel Olanok Apatxa Erreka bisitatuko du etzi

POLITIKA » Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak, Markel Olanok, eta Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizar-teko diputatuak, Jose Ramon Guridik, Tolosaldeko enpresetan bisitak egingo dituzte. Apatxa-Erreka industria poligonoan kokatuta dauden Ibaia Energia eta Art-panel, Formas y Superficies enpresetako zuzendariekin bilduko dira etzi goizean. Egitasmo honen helburua, «Gipuzkoako Foru Aldundiko krisiaren aurkako planaren laguntza enpresek garatuko dituzten proiektuen nondik norakoak ezagutzera da».

Zeberio II.ak eta Aizpurua partida dute gaur

ERREMONTEA » Gaur Hernaniko Galarreta pilotalekuan, eskualdeko erremonte jokalariek partidak izango dituzte. Jaialdia 16:00etan hasiko da eta lau norgehiagoka ikusteko aukera izango da. Alde batetik, arratsaldeko bigarrenean Zeberio II eta Ion, Urtasun eta Urrutiaren aurka ariko dira. Hurrengoan berriz, tolosar bat aterako da kantxara, Juaristi-Aizpurua II osatutako bikotea Uterga-Balaztenaren kontra ariko da.

Lagundu Udalbiltzaren kontrako epaiketaren gastuei aurre egiten

DENON ARTEAN ERABILTZA ASKE!

EUSKAL HERRIA

Bai

3035 0071 63 0711124600

Amasatik Hiru Erregeen Mahaira lau egunetan

Amasa » Linza eta Amasa bereizten dituen bidea lau egunetan egitea zen hiruz gazte hauen erronka, eta uztaileko lehen lau egunetan bete zuten.

OIHANA IGUARAN

Arretxe anaiek herritik abiatu eta Hiru Erregeen Mahaira lau egunen buruan heltzeko erronkari heltzeko gogoa zuten aspalditik. Uztailaren 1, 2, 3 eta 4a izan ziren azkenean aukeratutako egunak, eta beste gazte bat animatu zitzaizten. Hiru izan ziren beraz, bide horri ekin ziotenak: Mikel Arretxe, Arkaitz Arretxe eta Mikel Gallarraga.

Dena den, bide osoan zehar autobaten laguntza izan zuten, metro soil bat kotxez egitearen aurka bazuden ere, laguntza izan zezaten behar izanez gero. Josune Arretxe izan zen lan hori bete zuena, lotarako tokiak eta afariak lotuz.

Uztailaren 1a, Amasa-Irurita

Lehen egunari etekina atera nahian, goizeko bostetan ekin zioten bideari, mapak eskuan hartuta. Izan ere, bide luzea zuten aurretik: Amasatik Nafarroako Irurita herrirainoko bidea egin zuten. Ilun-

petan abiatu ziren, goizeko freskuraz baliatu nahian, eguneko etsarik handiena beroa izango zutela zekiten eta.

Irurita aldera zihoazela, Goizuetatik pasa behar zutela eta, Arkaitz eta Mikel Arretxeren amonaren etxean egin zuten geldialdi txoa, han gosaldia, amona agurtu eta berriro bideari ekiteko.

Hamazazpi orduko ibilaldiaren ostean, «nekatuta eta ia goserik» gabe iritsi ziren Iruritar. Indarrak berreskuratua nahian, gaua Elizondon igaro zuten.

Uztailaren 2a, Irurita-Oreaga

Bigarren egunari zalantzekin ekin zioten, lehenengo aldia baitzen hirukote honek inguru hauek igarotzen zituela. Hala ere, «uste baino errazago» egin zuten bidea.

Bidean borondate oneko artzain bat ere topatu zuten, bere autoan eramango zituela esan ziena; baina hitzeko mutilak izanik oinez egin nahi zuten bidai osoa. Uztailaren



Nekea arintzeko moduko paisaiak topatu zituzten bidean. ARKAITZ ARRETXE

bigarren egun hura ere ez zen batere hotza izan, berriro ere beroa izan baitzuten bidelagun (edo bideko etsai). Bero izugarri horiekin gazteak beldur ziren asteburu aldera iragarrita zegoen moduan ekaitz gogorren batek harrapatuko te zituen.

Uztailaren 3a, Oreaga-Larrau

Auritzen gaua igaro eta berriro Oreagatik bideari ekin zioten. Horrela gogoratzen du bertaratu zuten Josune Arretxek goiz hartan mendiak eta inguruak zuten itxura:

«Goizean behe lainoa zen nagusi, Oreagako toki misterioitsuak ezkutatuta nahi balitu bezala, ez zen zaila Karlomagoren gudarostea eta baskoien arteko guda imajinatzea. Baina gaur egun Oreagan baskoia baino gehiago dira atzerriko erromesak, Santiago de Compostela aldera iristeko asmoz lehen urratsak hasi dituztenak. Eta erromes horien artean beste alde batera, Nafarroako goi mendietara, abiatu ziren Amasako hiruz gazteak. Behe lainoak zertxobait galarrak ziren paisaia dotore horien ikuspegia baina asmoa zuten bezala Orhi mendia magalera iritsi ziren, Larrau mendatera. Inguru haietan ere artzainak topatu zituzten, mila buruko artaldeekin, xume bezain tinko. Muga artifizialen eraginez iparraldekoak deitu izan zaien artzain euskaldun hauek fin jarraitzen diete beren lanei».

Uztailaren 4a, Larrau-Linza

Igandea, azken eguna, Hiru Erregeen Mahaira iritsi nahi ziren hiruz mutilak. Eguzkiaren lehen printzak agertu orduko hantxe zeuden amasarrak Orhi mendia magalean. Berriro ere behe-lainoak inguratzen zituen, baina poliki-poliki ekin zioten bideari.

Azken eguna izanik, eguna lasaia hartu zuten, ordurako kilometro asko eta asko egindako oin mesederako. Eta iritsi ziren Linzako aterpera, beste amasarrak zain zituzten tokira. Txaloka hartu zituzten, Josune Arretxek esan bezala, «hiru mutil hauek argi utzi zuten esandakoa egin egiten dutela, hitzak ez dituela haizeak eramaten».

Gainerako gazteen ezinegona

Hiru mendizale gazteen ideiarekin, beste batzuk ere animatu ziren: batzuk, astean zehar lana izanik, asteburuan hartu zuten euren txanda eta txirringan egin zuten Linzarainoko bidea, igandean gurpilak utzi eta oinez Hiru Erregeen Mahaiko gailurrera heltzeko.

Jende gehiago ere bertaratu zen, gazte hauei harrera egin eta bide batez, inguru eder haietan asteburua pasatzeko.

Erronka bete arren laster berriz mendiratzeko asmoa dute gazte amasarrak, iaz Lesakara egindako bidea aurten Lesakatik Amasara egiteko. Iaz jende ugari animatu zen Lesakara, eta egun ederra pasa zuten. Ea aurten errepikatzen den.



GPSrik ez eramatea erabaki zuten mendizaleek. JOSUNE ARRETXE



Mikel Arretxe Orhiko magalean. ARKAITZ ARRETXE



harpidedun
TXOKOA hitza



sarituak

Gaurko irabazlea:
Manuela Jauregi (Tolosa)

Afaria jasotzeko, Azokako txarteldegira hurbildu harpidedun txartelarekin.

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira





Nafarroara joango gara aste honetan, berriz ere, eta Leitza, Larraun eta Araitz inguruak ezagutzeko aukera izango dugu. Ibilbideak 65 bat kilometro ditu.

Uitziko mendatea ezagutzera

JOXEMI SAIZAR

Nafarroara eramango gaitu berriro gaurko ibilbideak, Leitza, Larraun eta Araitz inguruak bisitatuz, eta lehendik eginak ditugun bi tarte izango ditu: Tolosa-Leitza eta Betelu-Tolosa.

Hain gertu dugun lurraldearen zati bat hobeto ezagutzeko parada izango da. Guztira 65 km inguru ditu ibilbide honek.

Ibarra, Berrobi, Elduain eta Berastegi

Abiatu, Tolosaldeak Nafarroara duen irtenbideetako batetik abiatuko gara, eta itzuli beste aukera batetik. Leitza-ra joateko Ibarra, Berrobi, Elduain eta Berastegi pasatu beharko ditugu. Horrek esan nahi du aldapa dezente izango ditugula hogeit hamar kilometro horietan,

tartean portzentzai altuak hartuz, %10ekoa, besteak beste.

Hauspoa ederki berotuta, San Anton mendatea igota, atsedean hartzeko parada dago Leitzaraino eta Areson sartu-irtena egiteko aprobeztatuko dugu, gure eskualdeko herririk ezezagunenetakoa gehienontzat. Kilometro pare bat besterik ez dugu desbideratu behar bide nagusitik.

Aspaldiko herria dugu Areso, 1192koak dira bere lehen aipamenak, eta azken urteotan bere izena asko entzun da guardia zibilek Olentzero lapurtu zutelako 2005eko Gabonetan.

Peru Harri alde batera

Leitza pasata, Iñaki Perurenak egindako Peru Harri eskulturguneara utziko dugu alde batera Uitziko



Uitziko herriaren ikuspegi orokorra. JOXEMI SAIZAR

ko mendateari aurre egin aurretik. Mendate luzea da, aldapa handirik gabe, baina neketsua, etengabeko igoera baita.

Zortzirehun metro tara iritsiko gara azkenean, kasu honetan laino artean. Jaitsieran, berehala Uitziko

herria daukagu, Nikolas Ormaetxea *Orix*e idazle orexarra hazitzen herria. Etxe ederrak ikus daitezke bertan.

Lekuberritik Azpirotz jaitsi, eta Betelutik barrena Tolosara
Aurrera jarraituta, berehala Lekuberritik topatuko dugu, 16 konzejuk osatzen duten Larraun bailarako burua eta San Migel santutegira eta Aralar mendizerrara joateko abiapuntua.

Azpirotz gaina hartzeko metro gutxi batzuetako desmibela gainditu eta handik aurrera dena behegarria da.

Aurrera jaitsiera gogorra Bete-luraino eta gero leuna Arribe, Atallu eta, Gipuzkoan sartuta, Lizartza pasatuz, helmugaraino, Tolosara iritsi arte.



Hilberria

IMANOL SAMPEDRO AGIRREBENGOA

Atzo hil zen, 75 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golanbego-

Bere arima zuzendaria: Juan M. Olaetxea; anai-arrebak: Maria Luisa (Arturo Burgosen alarguna), Jose (†); ilobak: Mari Jose eta Juan Agirre, Amelia (†), Belen eta Luis Mari Izquierdo; lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otowitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR LARUNBATA, arratsaldeko BOSTETAN, SAN MARTIN parroki elizan gorpua bertan dela egingo den hiletara. Eskerrik asko guztioi aldeaz aurretik.

Helbidea: Lizardi etxea, 4.B.
Oharra: sorpua Beasaingo Goierri beilatokian egongo da.



ATAUN
2010eko
uztailaren 17a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Herriko plazan abestuko dute Txintxarriko partaideek, bihar

Alegia » Bihar bukatuko dira Karmen jaiak, baina aurretik ordu asko eta ekitaldi pila daude gozatzeko; horietako bat herriko abesbatzaren kontzertua izango da.

ERREDAKZIOA

Karmen festetan murgildu dira alegiarrak, eta horiekin batera herriko abesbatza ere ari da jaiari bere ekarpena egiten.

Aurten 50. urteurrena ospatzen ari dira abesbatzako kideak eta emanaldi berezia antolatu dute festetarako. Txistularien eta metal boskote baten laguntzaz kantuan ariko dira bihar eguerdian herriko plazan. 12:30etatik aurrera aterako ditu abesbatzak bere kantuak kaleara. Kontzertua herriko plazan egingo da, festetako egitarauaren baitan.

Talde ugari

Karmenetako biharko «alarde-kontzertuan» talde ugariak parte hartuko dute: Tolosaldeko eta Goierriko Txistulariak, Tolosako Musika Eskolako Metal Boskotea, Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzak eta herriko Sutarri dantza taldeak.

«Euskal Herriko hirietan ohitura handia dago txistulari alardeak egiteko, baina Alegian oso gutxitan egin da horrelakorik. Horregatik, 2010. urtea egokia izan zitekeela iritzita, emanaldi berezi bat antolatzeari bururatu zitzaizgun», argitu dute abesbatzako kideak.

Emanaldia bi pertsonak zuzenduko dute, Iñaki Letamendia Tolosako txistulari bandako zuzendari eta musika eskolako txistu irakasle denak, eta Garbiñe Orbegozo Hernaniko musika eskolako irakasle eta Txintxarri abesbatzaren zuzendariak. Aurten hogeitau urte beteko dira Orbegozo korua zuzentzen hasi zela.

Felix Iruzastabarrena alegiarrak, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko idazkari ere badenak, eta Nerea Pikabea Txintxarri abesbatzako kantariak aurkeztuko dute emanaldia.

Emanaldi herrikoia izango da

Biribilketa dinamikoko batekin hasiko dute biharko kontzertua. Hernaniko Isidro Ansorena txistulari handi izandakoak konposatutako *Mendi aldera* eskainiko dute. Segidan *Arabian bagare* euskal kantu ezaguna kantatuko dute. Hitzza Bitzor Kapanaga otxandioarrak jarritakoa da eta doina, berriz, Gon-



Emanaldi berezia eskainiko du bihar Txintxarri abesbatzak herriko plazan, jaien baitan. HITZA

tzal Mendibilena. Entzungo den moldaketa Txomin Agirregomez-korta Pasai Donibane txistulariarena da.

Andoni Egañaren bi bertso-sorta

Bertsoek ere izango dute lekurik kontzertuan.

Hala, Andoni Egaña bertsolari txapelidunak idatzitako bi bertso-sorta kantatuko dituzte; Xefe Balardi koruko tenore bakarlariak jarriko du ahotsa eta koraak zenbait momentutan lagunduko dio. *Herrimin* izango da bertsoetako bat. Egañaren bertso horiei doina ezarri zien Xabier Zabala zarautzarrak, Pirritx eta Porrotx pailazontzat makina bat kantu sortu dituenak. Bilboko alarde baterako eskatuta egin zuen. Ipar Amerike-

tara artzain joandako euskaldun baten herrimina kontatzen dute bertsoek. *Arabian bagare* eta *Baldorba* abestietan ere entzun ahal izango da Xefe Balardiren ahots ederra.

German Intxausti gogoan

Kontzertuan gogoan izango dute, baita ere, duela sei urte hil zen German Intxausti herriko txistularia.

Hark herrian utzitako arrastoa handia izan da eta horregatik berak konposatutako hiru pieza joko dituzte: *Oria* fandangoa, *Aldaba txiki* arin arina eta *Xamor* biribilketa. Azken pieza hau Alegiako Tomas Iraola zenari eskainitakoa da. Iraolak lan handia egin zuen 70eko hamarkadan herrian txistua eta euskal dantzak suspertzen. Ger-

man Intxaustiren hiru pieza horien moldaketa guztiak Javier Hernandez Arsuaga bere garai Donostiako txistulari bandaren zuzendari izandakoak egindakoak dira.

Ondoren, Benito Lertxundiren *Baldorba* abestuko dute. Hitzak Juan Antonio Urbeltzenak dira eta Ismael Yagüe Iruñeko txistulariak moldatu zuen.

Txintxarri Txikikoekin batera kantatuko dute Imanol Urbietara zarautzarrak umeentzako egindako *Behin betiko*. Segidan, Egañaren *Herri* izeneko bertsoa. Bertsolari zarautzarrak grabatutako *Tximeletak sabelean* diskoko bertso musikatuak dira. 1994an kaleratu zen disko horietako bertso horien doina Piter Ansorenak egindakoa da.

Pasatu berri diren sanferminak

Euskal kantutegiko abesti ezagunak

Emanaldiari amaiera emateko, euskal kantagintzaren barruan oso ezagun diren bi obra eskainiko dituzte: Oskorriren *Furra furra*, Ereñotzuko Imanol Kamiok moldatutakoa, eta Buenaventura Zapirainen Txanton Piperrri operako *Azken ereserkia*. Toribio Alzagarenak dira kantuaren hitzak.

Aspaldikoa da opera hori; 1899ko Errege egunean estreinatu zuten Donostian. Ganboarren eta Oinaztaren arteko borrokak orotaratzen ditu.

Esan bezala, hortaz, kantua eta txistua izango dira biharko emanaldiaren oinarriak. Txistua izan baita Euskal Herriko musika zabaltzen lagundu duen tresnetako bat.

Herri musikan soinu-tresna zabalduena eta ezagunena da, eta Alegian ere tradizio handia izan du. Gogora ekarri behar da Laureano Zubeldia, *Txanbolin* ezizenez ezagutzen zena, alegiarrak.

Gerraurreko garaietan makina bat ospakizun eta igande arratsalde alaitu zituen bere txistu eta dantbolinaren laguntzaz herriko plazak arkupeetan jarrita. Berarekin batera txistulari banda osatzen zuten Imanol Artano, Joxe Mari Zabala eta Alberto Gaztañanak, *Abi-ttok*.

40ko hamarkada horretan baze beste txistulari bikain bat herrian, Rikardo Intxausti. Honek semearekin, Germani kutsatu zion txisturako zaletasuna. Aipatu bezala, badira sei urte pasatxo hil zela, baina hark herrian utzitako arrastoa handia da. Herri herri ibiltzen zen txistua jotzen. Karmenetan ere makina bat urte egin zituen goiz-goiz jaiki eta txistu-hotsarekin alegitarrak esnatzen. Isilpean egindako lan handi hori, bere andreak eta seme-alabek ondo gorde eta zainduta altxorra da.

70eko hamarkadan, txistu eta dantzen suspertzalea, zalantzarik gabe, Tomas Iraola izan zen, Inaxio Begiristain lagun zuela. Benetako txistu eskola jarri zuten martxan 1970etik 1980ra bitartean.

Biharko emanaldian, hortaz, herriko musikariak, oraingoak eta iraganekoak, omenduko dituzte etorkizunerako hazia prestatzen duten bitartean.

Kontzertuarekin batera, hala ere, ekitaldi ugari izango dira Karmen jaietara behar bezalako bukaera eman ahal izateko.

» KARMEN JAIEN GAURKO EGITARAUAK

JAI OFIZIALAK

- **09:00.** Arrantza Lehiaketa Ori ibaian 6 eta 14 urte bitarteko lehiakideentzat.
- **09:00.** Herriko txistularien eta trikitilarien diana.
- **9:30.** Giroarte dultzaina taldearen diana.
- **12:00.** Sagardo dastaketa sardina eta txorizo erreekin.
- **12:00.** Asier Unsain eta Irma Kar-

rrerarekin trikitixa emanaldia herriko plazan.

- **17:30.** Ume jolasak plazan.
- **19:00.** Asier Unsain eta Irma Karrrerarekin trikitixa herriko plazan.
- **19:00.** Herritarren arteko toka txapelketa plazan (18 urtetik gorakoentzat).
- **19:30.** Patata tortilla txapelketa.
- **21:00.** Herri afaria plazan (Sagardotegi menua).

- **23:30.** Anje Duhalderen kontzertua plazan.
- **01:00.** Dj Imanol.

JAI ALTERNATIBOAK

- **Iluntzean** Zahagiardoa bertaratuentzat.
- **Gauean** Gaztetxean «txapa hotsa ta burrunbie».
- **Ondoren** Bulebarrean herriko Dj-ak.

EIZMENDI ARMATEGIA
KIRLOLONDENA

Kirol gaiak konpontzeko lantegia
Aukera handia eskopeta eta kartutxoetan

Berria, 19 • Billabona
Tel.: 943692623 • Faxa: 943693044

BRONTXILLO Harategia • Itsaskide

943 69 68 23
Santio, 4
Villabona



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

■ **Tolosa.** *Campamento Flipy* filma
Leidorren 19:30ean eta 22:30ean.

Jaiak

■ **Asteasu.** Santamañako jaiak:
11:00etan meza; ondoren hamai-
ketakoa; 13:00etan herri kirolak;
ondoren Mañukorta eta Peñagari-
kano bertsoariak eta Izer, Alabier
eta Lutxurdio trikitilariak; 17:30ean
kalejira; gauean Izer, Alabier eta
Lutxurdio trikitilariak eta goizalde-
ra txokolatada.
■ **Alegia.** Karmen Jaiak. Egitarau
ofiziala: 09:00etan arrantza lehia-
keta 6 eta 14 urte bitartekoentzat
eta herriko txistularien eta trikitila-
rien diana; 09:30ean Giroarte dul-
tzaina taldearen diana; 12:00etan
sagardo dastaketa sardina eta txo-
rizo errekin; 12:00etan Asier Un-
sain eta Irma Karrearekin trikitixa
herriko plazan; 17:30ean ume jola-
sak plazan; 19:00etan trikitixa he-
rriko plazan; 19:00etan herri afaria plazan;
23:30ean Anje Duhalde plazan

eta 01:00etan DJ Imanol. Jai Alter-
natiiboak: iluntzean zahagiardoa;
gauean Gaztetxean «txapa hotsa
ta burrundie» eta ondoren Buleba-
rreen herriko DJ-ak.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal He-
rria kalea, 46. 943 67 32 74.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar
kalea, 25. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Kaletik. **09:00.** Alex eta
Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur.
10:00. Sakonduz. **10:30.** Klipak.
11:00. Ilunpean. **11:30.** Tolosalde-
an Gaur. **12:00.** Kiroleroak. **12:30.**
Nonochan. **13:00.** Tolosaldean
Gaur. **13:30.** Tolosaldean Gaur.
14:00. Klipak. **14:30.** Eltze. **15:00.**
On ein! **15:30.** Tolosaldean Gaur.
16:00. Kultur zulo.
(*12:30etik 16:00etarako blokea
lau orduko errepikatuko dute).

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Danenakoak «pattal» Coruñan

VILLABONA Pasa den asteburuan Coruñan halterofi-
liako XVII. Espainiako Absolutu Txapelketa ospatu
zen eta bertan Danena taldeak parte hartu zuen,
nahiz eta «pattal» samar ibili. 62 kiloko mailan Iker
Hernandezek (argazkian) 4. postua lortu zuen, baina
nabarmendu behar da Euskadiko errekor berria ezarri

zuela *arrankada* modalitatean 105 kilorekin. 69 kiloko
mailan, aldiz, Igor Sasiainek 5. postua egin zuen eta
lon Sasiainek 6.a. 77 kilotan Francisco Gonzalez sei-
garren geratu zen eta 85 kilokoan Teddy Martinez
laugarrena izan zen. 105 kilokoan Francisco Cruz 4.
izan zen, *arrankadan* brontzezko domina lortuz. HITZA

A Agurrak



Zorionak!

Garazi Alkain (Armezeta).
4 urte.
Zorionak etxekoan partetik
bereziki Aratz eta osaba
Josebaren eskutik.



Zorionak Marta eta Iñigo!

Datorren irailaren 25ean ezkunduko dira.
Ezer esateko duenak, badu nahikoa denbora.
Las sancosmeras.

agurrak urtebetetzeak - Urrezko ezteak - ezkontzak
jaloberrak - Jaunartzeak...
**Mesedez, ekarri argazkin bi egun lehenago ondoko
leku hauetako batera. Mila esker.**
• HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5. behea
• HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

14. GARAGARDO AZOKA
14ª FERIA DE LA CERVEZA
UZTAILAREN 15tik - 18ra.
DEL 15 AL 18 DE JULIO
Ondaraga 28. 01001 - 1. Oñati
Pasaioa 08. 0101 - 1. Oñati

VILLABONA

berria bekak 2010

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **zortzi beka**, horietako bat, bideo informatiboak lantzeko.

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**.

Ezaugarriak:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainean duen egoitza nagusian edo ordezkaritzaentzat

Ezaugarriak:

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainean duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2010-09-08

Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragarri

aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**